

❖ Irakurri arreta handiz hurrengo testuak eta gero erantzun beheko galderai.

INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-FAMILIAK. 2008KO 4. HIRUHILEKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko bizilekuen erdiak baino gehiagok izan du 2008. urtean Interneterako konexioa

Interneten nabigatzean askoz gehiago erabili dira euskara eta ingelesa

Eustaten datuen arabera, 2008ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 15 urteko eta gehiagoko 929.300 pertsonak erabili du Internet, hau da, Euskal AEn adin hori duten biztanleen % 50,5ek erabili du. 2007ko laugarren hiruhilekoaren aldean % 6,4 gehitu da ehuneko hori.

Lurralde historikoka, Araban gehitu da gehien erabiltzaile kopurua: % 3,8, 2008ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Horrela, Interneteko erabiltzaile kopuru handiena dutenen artean lehenengo geratu da % 51,5ekin. Bizkaian % 3,6 gehitu da kopuru hori, hau da, bigarren postuan dago azken hiru hilabeteetan pertsona guztien % 50,4k erabili baitu Internet. Gipuzkoan, bestalde, kopurua pixka bat murriztu da, % 0,6; 15 urteko eta gehiagoko biztanleen % 50ek erabili du Internet.

Adina kontuan hartuta, 55-64 urte bitarteko erabiltzaileak aipatu behar dira. Adin honetako erabiltzaile kopurua % 11,2 gehitu da, 2008ko bigarren hiruhilekoaren aldean. 65 urtetik gorako erabiltzaileen kopurua gehitu ere egin da, % 18,8 urte horretako bigarren hiruhilekoaren aldean eta % 64,1 2007ko laugarren hiruhilekoaren aldean. 25-34 urte arteko pertsonen artean ere gehitu da Interneten erabiltzaileen kopurua: % 3,6. 15-24 urte bitarteko pertsonen % 88,2k Internet erabili du azken hiru hilabeteetan, hau da, urte bereko bigarren hiruhilekoan baino % 4,5 gutxiago.

1/ Datu horien arabera, 15 urteko eta gehiagoko zenbat biztanle dago Euskal AEn?

.....

2/ Ordenatu, txikitik handira, 2008ko bigarren hiruhilekoan lurralde bakoitzean zeuden erabiltzaileen ehunekoak.

.....

.....

.....

.....

Prentsa digitala da oraindik nagusi 2008ko bigarren hiruhilekoan gehien bisitatu diren webguneen artean

Bigarren postuan beste hauek daude: Arabako internauten arabera turismoari lotutako webguneak, Gipuzkoako arabera bankuak eta Bizkaiko arabera mezularitzari lotutako web orriak

Eustatek 2008ko bigarren hiruhilekoari buruz jaso dituen datuen arabera, Euskal AEn Internet erabiltzen duten pertsona gehienek komunikabideen webguneetara jotzen dute batez ere eta, gero, aisiari lotutakoetara, erakundeetara, banku elektronikoetara eta bidaietara.

Bisita gehien jaso duen webgunea "elcorreodigital.com" izan da orain ere, Interneteko erabiltzaile guztien % 12,2k jo duelako bertara, hau da, 102.400 aipamen izan ditu. Ondoren, beste komunikabide hauek izan dira aipatuena: "diariovasco.com" (% 6,2) eta "marca.es" (% 3,9).

Komunikabideen ostean aisiako mezularitzari lotutako webguneak dira nagusi ("hotmail.com", adibidez), Interneten erabiltzaileen % 4,4k aipatu baititu.

3/ Datu horien arabera, zenbat dira guztira jasotako aipamenak?

.....

4/ Esan, datu horien arabera, "Marca" egunkariak zenbat aipamen izan dituen.

.....

5/ Datu horiek bat al datoz Interneten egiten duzun erabilerarekin? Zein da gehien erabiltzen duzun webgunea?

.....

.....

.....

.....